



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 20a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Ministerioarekin Lankidetzeta Hitzarmen bat sina dezan, langileen istripu edo gaixotasun baten lanbide-kontingentzia aitortzen duten lan arloko epaietako informazioa bideratzekoa. Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Paderborn-Víctor Pradera HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Ingeleseztarako Programari dagokionez, 2016-2017 ikasturterako ezarritako luzamendua ezartzeari utz diezaion eta berriro ezar dezan programa 2017-2018 ikasturterako. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datu-base bakarra sor dezan, Nafarroako ezin administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-erabilgarritza eta -eskari guztia bilduko duena. Eskubide Sozialerako Batzordean izapidetzea (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da KiVa metodoa azter dezan, gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, maiatzaren 17an ospatzen den LGTBfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Gobernuaren ordezkari andrearen jokabidea, Agoizko Udalari egin dion errekerimenduagatik, eta haren dimisioa berriro exijitzen du. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, erabaki baten betetzeari buruzkoa, zeinak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko lan-mahai bat sor dezan. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (10. or.).

- Galdera, jakitekoa Panaman ondarea duen nafar zergadun edo enpresarik ba ote dagoen. Jokin Castiella Imaz jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Cintruenigoko La Paz BHIak bertan Ingelesez Ikasteko Programa ezartzeko egindako eskaerei erantzuteko aurreikusten den jarduketa-ildoari eta eraikin berri bat egiteari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako errepideetan egindako inbertsioei eta kontserbazio-gastuei buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikorako bizikidetzeta protokoloa ezartzeko Batzordeari eta Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Institutu bat eraikitzeari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (12. or.).
- Galdera, erizainek sendagaiak agintzeari buruzko araudia errazteko Erizaintzako SATSE sindikatuak egin duen aldarrikapenari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (13. or.).
- Galdera, musika-irakaskuntzak ematen dituzten udalerriekiko hitzarmenak bermatzeko konpromisoari buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Paderborn-Victor Pradera ikastetxe publikoak José Vila ikastetxe publikoa izan zenaren instalazioetara lekualdatzeko egin duen proposamenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren irizpidea Andosillako Udalak Osoko Bilkuran hartutako erabakiari buruz, zeinaren bidez Departamentuari eskatzen baitzaio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailak herrian ezartzeko. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak artaturiko pertsonen banaketa geografikoari eta eskualdekako eta urtekako arreta-orduei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (16. or.).
- Galdera, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratze-programari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (17. or.).
- Galdera, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak, Otero de Navascués Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoko eta La Paz DBHIko guraso-elkarteek eta herriko ikastetxe publikoetako zuzendaritzek herrian Batxilergoa eta LHko ikastaroren bat ezartzeko egin duten proposamenari dagokionez. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigon Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita daukan Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen ikasleei herriko La Paz DBHIan jarraipena emateko. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigoko Udalak, La Paz DBHIko guraso-elkarteak eta ikastetxeko zuzendaritzak espazioak handitzeko egin duten eskaerari buruz. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, eskola-jazarpenaren aurkako neurriei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko enpresak “Industria 4.0” izenekoan murgiltzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- “Nafarroako hezkuntza sistema” gaiari buruzko eztabaida antolatzeko arauak aldatzea (21. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Ministerioarekin Lankidetzaren Hitzarmen bat sina dezan, langileen istripu edo gaixotasun baten lanbide-kontingentzia aitortzen duten lan arloko epaietako informazioa bideratzekoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Justizia Ministerioarekin Lankidetzaren Hitzarmen bat sina dezan, langileen istripu edo gaixotasun baten lanbide-kontingentzia aitortzen duten lan arloko epaietako informazioa bideratzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan nahiz Estatuaren gainerako lurraldeetan izandako epai judizial andana batek lan edo lanbide izaerako kontingentziatzat jo ditu hasiera batean langileen kontingentzia arruntzat hartuak izan diren bidegabeki hartuak, izan ere aldi baterako zenbait ezintasun.

Enpresen prebentzio-sistemetatik eta zerbitzu medikoetatik eta, funtsean, laneko istripuen eta

lanbide-gaixotasunen ondoriozko arreta kudeatzeko kontratatutako mutualitateetatik, lan edo lanbide jatorri nabariko patologiak dituzten pazienteak masiboki ari dira bideratzen Nafarroako osasun sistema publikora. Askotan langile horiek lanbide izaerako kontingentziaren aitortzea auzibidean lortzen dute gero, haien zirkunstantziak ahalbidetzen dutenean.

Baina gertatzen dena da ezen, kontingentziaren lanbide-izaera epai bidez aitortu bitartean, Nafarroako Osasun Zerbitzua dela langile horiek artatzen dituen, funts publikoen kontura. Eta ez dago argi kostu horiek gero mutualitateei jasana-razten ote zaizkien, nahiz eta, berez, beraiei zegokien paziente horiei zerbitzua hasieratik ematea. Eta hori guztia egiten da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren oniritziarekin. Izan ere, horrek ere sistematikoki eta modu interesatuan baztertu ohi ditu (emandako arreta medikoaren kostua foru erkidegoaren funtsen konturakoa da, printzipioz) langileek administrazio bidean egiten dituzten erreklamazioak, beren patologien lanbide-kontingentzia izaera erreklamatzeko dutenean.

Egoera hori bidegabeki gainzamatzen ari da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kostuak, baita hango itxaron-zerrendak ere, batez ere Osasun Mentaleko eta Traumatologiako zerbitzuetan. Gainera, eragin bidegabekoa eta maltzurra sortzen da, mutualitateek eurek eskatzen dutenean proba diagnostikoak eta esku-hartzeak aurreratzeko eta, gero, kostu hori osasun zerbitzu publikoari edo kutxari jasana-razten diotenean; horrela, bereizkeria sortzen da langile ez diren bitanleen aurka.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzaren hitzarmen bat sina

dezan, 30/1992 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren babesean, Espainiako Gobernuko Justizia Ministerioarekin, lan arloan emandako epaiei buruzko informazio zehatza emateko bide aise bat taxutze aldera epai horiek langileen istripu edo gaixotasun baten lanbide-kontingentzia izaera aitortzen dutenean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du epai horien azterlan estatistiko bat egin dezan, epai horiek neurri handienez ukitzen dituzten sektoreak eta enpresak identifikatuko dituen, egoera horiek zuzentzeko egokiak diren jarduketak gauzatzeko asmoz. Azterlan hori Justizia Ministerioarekin sinatuko den lankidetzaz hitzarmenaren babesaz edo erabil daitezkeen beste baliabide batzuen bidez egin beharko da, epai guztiak jendaurrekoak direla kontuan hartuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren laguntzaz. Bertan aztertuko da, zerbitzu horren arreta jasotzen duten pazienteei dagokienez, pertsona horiek langile dituzten enpresek kontratatutako mutualitateek zenbati eskaini dioten probak, diagnostikoak eta ebakuntza kirurgikoak aurreratzea, osasun sistema publikoak eskaintzen dituen epeak azkartzeari begira. Azterlan horren helburua izanen da mutualitateek egindako eskaintza horren

eta sistema publikora behar ez bezala egindako balizko bideratzeen artean egon daitekeen harremana ezartzea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestakuntza-kanpaina egin dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez, oinarriko eta espezialitateetako osasun-laguntzako medikuentzat, mediku horiek lagundu dezaten identifikatzen, beren ustez eta irizpide profesionalari jarraituta, jatorriz lanekoak diren patologiak tratatze aldera osasun sistema publikora jotzen duten pazienteak. Halaber, mediku horiei prestakuntza eman behar zaie, kontingentziari buruz duten iritzi profesionala adierazten duten txostenak zorrotasunez egin ditzaten eta zuzemen egokiak egin ditzaten bidezko erreklamazio-prozesuak ofiziosz abiarazteko, pazienteei prozesu osoan lagunduta.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eska diezaion lanbide izaerako kontingentzien balorazio-irizpideak berrikusteko, arlo horretan galdu diren epaien kopuru handia ikusita.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Paderborn-Víctor Pradera HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Paderborn-Víctor Pradera HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Paderborn-Víctor Pradera HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara.

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak maiatzaren 7an egindako bisitan, Paderborn-Víctor Pradera HLHIPko hezkuntza komunitateak (zuzendaritza, zuzendaritza-taldea, irakasleak eta guraso-elkartea) aditzera eman zuen formalki, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara lekualdatu nahi zutela eta hori proposatzen zutela. Une honetan uste da eskaera horrek "aurrerapena ekarriko lukeela" ikastetxerako, zuzkiduraren eta kokapenaren mailan.

Paderborn-Víctor Pradera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa 1952an sortu zen, eta 173 ikasle ditu. Horietatik 80 Alemanez Ikasteko Programa Integralean daude; programa hori 2013-2014 ikasturtean ezarri zen, eta hurrengo urtean Lehen Hezkuntzako etapa amaituko du

lehenbiziko aldiz. Ikastetxeko hezkuntza proiektua elebitasunean oinarritzen da. Horiek horrela, gaztelania eta alemana erabiltzen dira komunikazio-hizkuntza gisa, eta horiei ingelesa gehitzen zaie Haur Hezkuntzako bigarren mailatik aurrera.

Bilkura horretan hainbat gai garrantzitsu eta adierazgarri aipatu ziren:

- Víctor Pradera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoaren egungo jolastokiak ez ditu ikastetxe publiko bati eska dakizkiokeen baldintzak. Izan ere, txikia da, zoru irregularra du, eta ez du toki estalirik. Horrek edozein jarduera egitea eragozten du.

- José Vilá ikastetxearen kokapenak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen banaketa orekatuagoa ahalbidetzen du. Gaur egun hainbat ikastetxe publiko daude oso hurbil: Paderborn-Víctor Pradera HLHIPaz gain, Azpilagaña HLHIPa eta Iturrana HLHIPa. Kokapen berrian espazioa hobeto estalita dago.

- Ikastetxeak espazio zabalagoa izanen du, eta ikasgeletarako leku gehiago egonen dira, laster behar beste ikasgelarik egonen ez delako egungo ikastetxean. Egungo kokapenean lerro baterako ikastetxea da, eta ikastetxeak bi edo hiru lerro hartuko omen ditu etorkizunean.

- José Vilá ikastetxearen kokapenean egonda, Paderborn-Víctor Pradera HLHIPa erakargune berri bat izanen litzateke auzoan. Ikastetxea hobetzeko eragin handiagoa egonen litzateke, beste gune batzuetako familia gehiago sartuko bailirateke hezkuntzaren aldetik.

- Ingurune egokia eta hobe, kalitateko ikastetxe publiko baten baldintzak betetzeko beharrezkoa dena.

- Haur Hezkuntzako matrikulak gehitzea. Matrikulatzeko aukera ematea ikastetxe bat behar duen eremu berri bati.

- Instalazio hobeak:

- Jolastoki handia
- Estalia
- Kiroldegia
- Musika Eskola

- Barruti berean egoten jarraitzea. Auzoari eta Iruñeari ikastetxe publiko baten irudi hobea eskainiko zaie.
- Alemanak hezkuntza komunitatean duen garrantzia. Alemana hobeto ordezkatzeko duen ikastetxe baten beharra.
- Aparkatzeko aukera gehiago familientzat.
- Ikastetxe publiko baterako irudi berria, Nafarroako hezkuntza publikoaren ospea areagotu dezakeena.
- Gaur egun ikasleen gurasoek edo tutoreek zirkulazioa geldiarazten dute sarreretan eta irteeretan.

retan. Egungo kokapena oso itxia da, eta, leku hori zarataz beterik egoteaz gain, ia ez dauka argirik (eguzkia ez ohi da iristen jolastokira).

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Paderborn-Víctor Pradera HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Ingelesez Ikasteko Programari dagokionez, 2016-2017 ikasturterako ezarritako luzamendua ezartzeari utz diezaion eta berriro ezar dezan programa 2017-2018 ikasturterako.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Ingelesez Ikasteko Programari dagokionez, 2016-2017 ikasturterako ezarritako luzamendua ezartzeari utz diezaion eta berriro ezar dezan programa 2017-2018 ikasturterako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Ingelesez

Ikasteko Programari dagokionez, 2016-2017 ikasturterako ezarritako luzamendua ezartzeari utz diezaion eta berriro ezar dezan programa 2017-2018 ikasturterako.

2015-2016 ikasturtean Ingelesez Ikasteko Programaren ebaluazio zabala abiarazi da; ebaluazio horrek egungo egoeraren eta ezarpen-prozesuaren azterlan bat bildu du, besteak beste. Eta azterlan horrek ebaluatu ditu diseinua, programaren ezaugarriak, ikastetxeetan ezartzeko prozedura eta ezarpenaren egoera, programaren egoera ikastetxe bakoitzean, arloko adituen dokumentazio teorikoa, irakasleen prestakuntza, eta programaren araudia. Halaber, ebaluazio deskriptiboa eta kuantitatiboa da, Hezkuntza Departamentuaren barneko dokumentazioaren analisisian eta bilketan oinarritzen dena eta dagoeneko konklusioak ekarri dituena.

Azterlan soziologikoak eztabaida-prozesua eragin du Ingelesez Ikasteko Programari zuzenean lotuta dauden sektoreen esperientzia eta ikuspegitik (zuzendariak, irakasleak, familiak eta departamentuko teknikariak). Horrez gain, haren hedapena aztertu, eta talde guztien gogobetetasun-maila neurtu eta baloratu da; horren arabera, programa ematen duten 106 ikastetxeen % 88k programa ematen jarraitu nahi dute.

Egoera horri gehitu behar zaio CIESen 2015eko abenduko inkestaren azterlana. Izan ere, horrek adierazten zuen nafarren % 83k Ingelesez Ikasteko Programak egoten jarraitzea nahi zutela. 2016-2017 ikasturterako aurre-matrikulazioan ikasleek programaren alde egin duten eskari ikaragarriak aditzera ematen du gizarteak, oro har, eta hezkuntza komunitateak, bereziki, programak aurrera egiten jarraitzea nahi dutela.

Ikastetxe publikoetako eta pribatuetako matrikulazioan joera aldatu da, azken horien alde eta eskola publikoaren kalterako, ziurgabetasunen, ziurtasunik ezaren eta segurtasunik ezaren ondorioz. Horrenbestez, programaren gogobetetasun-maila objektibatu horrek eta joera aldaketa horrek luzamendu hori amaitzea gomendatzen dute, zehaztasunik ezaren irudi hori saihesteko eta Nafarroako hezkuntza sistemari konfiantza helarazteko.

Beraz, erabakigarria da ebaluazioaren azken fasea amaitzea, Lehen Hezkuntzako curriculumaren gaitasunen eskuratzeko-mailari dagokionez,

baita indarguneak eta hobetu beharrekoak ezartzea eta hizkuntzen tratamendu integraturako plan berri bat diseinatzea ere. Horrela, plan hori curriculumera gehitu, eta ziurtasunak helarazi ahalko zaizkie Nafarroako hezkuntza komunitateari eta gizarteari, oro har, Ingelesez Ikasteko Programa 2017-2018 ikasturtean ikastetxe berrietan hedatzeko aukera berrezarrita eta luzamendua 2016-2017 ikasturtetik harantzago luzatzea eragotzita.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Ingelesez Ikasteko Programari dagokionez, 2016-2017 ikasturterako ezarritako luzamendua ezartzeari utz diezaion Hezkuntza Departamentuak eta berriro ezar dezan programa 2017-2018 ikasturterako.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datu-base bakarra sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita datu-base bakarra sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezake-

en enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena. Mozioa 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da KiVa metodoa azter dezan, gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko.

HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita KiVa metodoa azter dezan, gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko.

teko. Mozioa 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ekonomia

Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan. Mozioa 2016ko otsailaren 19ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, maiatzaren 17an ospatzen den LGTBfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du:

– Lanean aritzeko, Nafarroako Parlamentua erakunde eredugarria izan dadin eskubide berdintasunaren eta sexu-joeragatik eta genero-identitateagatik ez baztertzearen aldeko borrokan.

– Ekintzak bultzatzeko, sexu-joeragatiko eta genero-identitateagatiko bazterketaren aurkako borrokara bideratuak.

– Nafarroako Foru Komunitateko kultura eta hezkuntza arloko ekintzetan sartzeko maiatzaren

17a, LGTBfobiaren aurkako nazioarteko eguna baita, eta ekainaren 28a, sexu-askatasunen eguna baita, ekintza ikusgarrien bidez.

– LGBTIren arloko araudia osorik betetzeko, laguntze aldera gure gizartea askotarikoa eta errespetuzkoa izan dadin, zeinetan pertsona guztiak elkarrekin biziko diren, norberaren genero-identitateari edo sexu-joerari begiratu gabe.

– Eskura dituen zerbitzu eta tresna guztien koordinazio eta efizientzia handiena bilatzeko, berdintasun horretara iristeko”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Gobernuaren ordezkari andrearen jokabidea, Agoizko Udalarari egin dion errekerimenduagatik, eta haren dimisioa berriro exijitzen du.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen du Gobernuaren ordezkari Carmen Alba andrearen jokabidea, egiaztaturik haren helburua dela, berriro ere, torturaren aurkako salaketa isilaraztea eta kriminalizatzea. Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuak haren dimisioa berriro exijitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta laguntza adierazten dizkio Mikel Zabalzaren familiari, eta bere konpromisoa adierazten du, Mikel Zabalzaren memoriaren, aitortenaren eta egiaren alde. Halaber, bat egiten du Agoizko Uda-

larekin, gai honen inguruan Gobernuaren ordezkariak aurkeztutako errekerimenduari aurre egiteko.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du, funtzionario publikoek eta eskuin muturreko taldeek eragindako zio politikoen biktimak guztien aitortenaren alde, torturak jasan dituzten biktimak ere kontuan hartuta. Ildo berean, berriro exijitzen dio Espainiako Gobernuari ken dezala apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen aurka aurkeztu duen errekurtoa”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, erabaki baten betetzeari buruzkoa, zeinak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko lan-mahai bat sor dezan.**MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, erabaki baten betetzeari buruzkoa, zeinak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko lan-mahai bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan.

2016ko martxoaren 30eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian, 43. alean, jasotzen den bezala, Nafarroako Osasun Batzordeak, erabaki bat onetsi zuen, zeinak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu lan-mahai bat sor dezan, sindikatu guztiek, UTESNAK, alderdi politiko guztiek eta zeresana duten Foru Administrazioako departamentuetako (Barnea, Osasuna eta Hezkuntza) ordezkariak osatuko dutena eta Nafarroarako osasun-garraioaren eredia seriotasunez aztertuko duena. Zein betetze-egoeratan dago erabaki hori?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao

Galdera, jakitekoa Panaman ondarea duen nafar zergadun edo enpresarik ba ote dagoen.

JOKIN CASTIELLA IMAZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jokin Castiella Imaz jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Panaman ondarea duen nafar zergadun edo enpresarik ba ote dagoen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeako foru parlamentari Jokin Castiella Imaz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egoitza soziala Panaman daukaten eta, jakin izan dugunez, tributu-zama arintzeko xedez erabiltzen ziren *offshore* enpresei buruz berriki argitaraturiko informazioak ikusita,

Zer informazio dauka Nafarroako Gobernuak Panaman ondarea duen nafar zergadun edo enpresarik egoteari buruz?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Jokin Castiella Imaz

Galdera, Cintruenigoko La Paz BHIak bertan Ingelesez Ikasteko Programa ezartzeko egindako eskaerei erantzuteko aurreikusten den jarduketa-ildoari eta eraikin berri bat egiteari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Cintruenigoko La Paz BHIak bertan Ingelesez Ikasteko Programa ezartzeko egindako eskaerei erantzuteko aurreikusten den jarduketa-ildoari eta eraikin berri bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako Gobernuak aurreikusten duen jarduketa-ildoak, Cintruenigoko La Paz Bigarren Hezkuntzako Institutuak bertan Ingelesez Ikasteko Programa ezartzeko, eta eraikin berri bat, bere hezkuntza-eskaintza handitzea ahalbidetuko diona, egiteko aurkeztu dituen eskaerei erantzuteko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako errepideetan egindako inbertsioei eta kontserbazio-gastuei buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa aurkeztutako galdera, Nafarroako errepideetan egindako inbertsioei eta kontserbazio-gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

2016ko maiatzaren 12an egindako kontroleko Osoko Bilkuran, Garapen Ekonomikorako kontseilariak adierazi zuen 2012. urteaz geroztik ez

dela inbertsiorik egin errepideetan. Baieztapen hori dela eta, gai horri buruzko honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Zenbatekoak izan dira Nafarroako errepideetan egindako inbertsioak aurreko legegintzaldian, oro har eta urtez urte?

- Zenbatekoa izan da errepideen kontserbazioan egindako benetako gastua aurreko legegintzaldian, oro har eta urtez urte?

- Zenbatekoa izan da Nafarroako Gobernuak egindako inbertsioa aurreko legegintzaldian, oro har eta urtez urte, Lizarrerrian A-12 errepidea Ebro ibaiaren beste bazterrekin lotzeko?

- Zenbatekoa da Gobernuak 2016an errepideetarako aurreikusten duen inbertsioa, eta horretatik zenbat dagokio Izurdiagako trenbide-pasagunea kentzeari, aurreko Gobernuak kontratatu baitzuen urte anitzetako gastu-espediente baten bidez?

- Zenbatekoa da 2016ko aurrekontua errepideen kontserbaziorako?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikorako bizikidetza protokoloa ezartzeko Batzordeari eta Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Institutu bat eraikitzeari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikorako bizikidetza protokoloa ezartzeko Batzordeari eta Sarrigurenen Bigarren

Hezkuntzako eta Batxilergoko Institutu bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Sarriguren Ikastetxe Publikoa dela eta, 2016ko maiatzean Hezkuntzako kontseilariak Parlamentuan iragarri zuen batzorde baten sorrera, bizikidetzaren protokoloa ezartzeko eta, aipatu ikastetxearen dagokionez, haren jarraipena egiteko.

Gainera, Hezkuntza Departamentuari exijitu zaio idatzizko konpromiso bat, kronograma edo epeak zehazten dituen, Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Institutu bat eraiki-

tzeko. 20.000tik gora biztanle dituen haran horrek ez ditu horietako gazteenak sakabanaturik eduki nahi. Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Institutu publiko bat giltzarri bat da komunitate bat osatzeko, eta hura gabe ulertezina da zenbaitek "ekohiri" deitzen duten hori. Funtsezkoa da haranean erabilerak eta jarduerak dibertsifikatzeko, "lo-hiri" ideiatik aldentuta.

Egoera horren aurrean, zein da bizikidetzaren protokoloa ezartzeko batzordearen osaera eta noiz egonen da jarduteko prest? Eta noiz eta nola planteatuko da Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Institutu bat eraikitzea?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, erizainek sendagaiak agintzeari buruzko araudia errazteko Erizaintzako SATSE sindikatuak egin duen aldarrikapenari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, erizainek sendagaiak agintzeari buruzko araudia errazteko Erizaintzako SATSE sindikatuak egin duen aldarrikapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderi atxikita dagoen foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuaren lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Erizaintzaren Nazioarteko Eguna dela eta, Erizaintzako SATSE sindikatuak aldarrikapen batzuk helarazi zizkion Nafarroako Gobernuari, besteak beste, erizainek sendagaiak agintzeari buruzko araudia errazteko.

Osasun Departamentuak erantzuna emanen ote dio Erizaintzako SATSE sindikatuak erizainek sendagaiak agintzeari buruzko araudia errazteko egin duen aldarrikapenari?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, musika-irakaskuntzak ematen dituzten udalerriekiko hitzarmenak bermatzeko konpromisoari buruzkoa.

MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, musika-irakaskuntzak ematen dituzten udalerriekiko hitzarmenak bermatzeko konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, ondoko galdera aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuan harturik udaletako musika eskolek eta haien finantzatzen dituzten udalek gaur egun duten egoera, eta ikusirik programa-akordioan konpromiso bat jasotzen dela musika irakaskuntzak ematen dituzten udalerriekiko hitzarmenak bermatzeko, jakin nahi dugu nolako urratsak egin dituen edo egingen dituen Nafarroako Gobernuak, aipatu helburua betetzeko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Paderborn-Victor Pradera ikastetxe publikoak José Vila ikastetxe publikoa izan zenaren instalazioetara lekualdatzeko egin duen proposamenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Paderborn-Victor Pradera ikastetxe publikoak José Vila ikastetxe publikoa izan zenaren instalazioetara lekualdatzeko egin duen proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zeintzuk dira Hezkuntza Departamentuaren irizpidea eta aurreikuspena, Paderborn-Victor Pradera ikastetxe publikoak José Vila ikastetxe publikoa izan zenaren instalazioetara lekualdatzeko egin duen proposamenari dagokionez?

Corellan, 2016ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren irizpidea Andosillako Udalak Osoko Bilkuran hartutako erabakiari buruz, zeinaren bidez Departamentuari eskatzen baitzaio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailak herrian ezartzeko.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren irizpidea Andosillako Udalak Osoko Bilkuran hartutako erabakiari buruz, zeinaren bidez Departamentuari eskatzen baitzaio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailak herrian ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zein da Hezkuntza Departamentuaren irizpidea Andosillako Udalak Osoko Bilkuran hartutako erabakiari buruz, zeinaren bidez Departamentuari eskatzen baitzaio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailak herrian ezartzeko?

Corellan, 2016ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua 2015eko oroitidazkiari buruzkoa eta 2016ko hilabeteetako datuak eskura ote dituzten jakitekoa, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

– Etxez etxeko laguntza zerbitzua osatzen duten profesionalak, eta programara bideratutako lanaldi osoko lanpostuen kopurua, zuzeneko edo zeharkako kontrataziokoetatik bereizita. Kontuan

hartuz programen arabera arduraldia. Lanaldi osoko profesionalaren arreta-ratioa.

– Zeharkako kontratazioaren bidez zerbitzua ematen duten entitateak, arloka banakatuta.

– Gizarte langileen jardueraren banaketa.

Udalak udal arautegiaren arabera, eta etxez etxeko laguntzako beste zerbitzu batzuk; ELZko

ordutegiak, erabiltzaileak, eta eskualdeen arabera hartzen diren prestazioak. Banaketa, zerbitzuen eta adinen arabera; laguntza teknikoetarako maileguak.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak artaturiko pertsonen banaketa geografikoari eta eskualdekako eta urtekako arreta-orduei buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak artaturiko pertsonen banaketa geografikoari eta eskualdekako eta urtekako arreta-orduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako kontseilari eta lehendakariordeari egindako galdera, idatziz erantzun dezan, 2015ean zuzeneko arreta emandakoei buruzkoa, eta 2016ko hilabeteetako datuak ote dauden jakitekoa, zuzeneko arretaren banaketa geografikoa, zuzeneko arreta-orduen banaketa arloen eta urtearen arabera, eta zuzeneko arretaren batez besteko maiztasuna eta intentsitatea kontuan hartuta.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratze-programari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratze-programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltolari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan, 2015eko eta 2016ko hilabeteetako gizarteratze-programari dagokionez. Programak, gizarteratze-programari jasaten dutenen edo arrisku hori dutenen gizarteratzea bultzatzen du eta gizarteratze-programa ezarrita duten oinarritzko gizarteratze-programa ezarrita ez dutenen edo gizarteratu eta lan munduan sartzeko taldeen bidez jarduten dutenen bidez koordinatzen du.

– Gizarteratze-programari atxikitako profesionalak, profila, guztirako arduraldia, eta 2015ean eta 2016an programari esleitutako portzentajea.

– Erabiltzaileak, programatik arreta emandakoak eta esku-hartzeak, guztira, programatik aplikatutako baliabide bakoitzeko. Xehekatuta adieraztea banakako ibilbideak, akonpainamendu soziala duten pertsonak, eta gizarteratzeko edo gizarteratzeko eta laneratzeko akordioak, Oinarritzko Gizarteratze Zerbitzuek 2015ean eta 2016ko hilabeteetan eginak.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak, Otero de Navascués Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoko eta La Paz DBHIko guraso-elkarteek eta herriko ikastetxe publikoetako zuzendaritzek herrian Batxilergoa eta LHko ikastaroren bat ezartzeko egin duten proposamenari dagokionez.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak, Otero de Navascués Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoko eta La Paz DBHIko guraso-elkarteek eta herriko ikastetxe publikoetako zuzendaritzek herrian Ba-

txilergoa eta LHko ikastaroren bat ezartzeko egin duten proposamenari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zeintzuk dira Hezkuntza Departamentuaren irizpidea eta aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak,

Otero de Navascués Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoko eta La Paz DBHiko guraso-elkarteek eta herriko ikastetxe publikoetako zuzendaritzek herrian Batxilergoa eta LHko ikastaroren bat ezartzeko egin duten proposamenari dagokionez?

Corellan, 2016ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigon Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita daukan Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen ikasleei herriko La Paz DBHian jarraipena emateko.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigon Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita daukan Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen ikasleei herriko La Paz DBHian jarraipena emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zer aurreikuspen du Hezkuntza Departamentuak Cintruenigon Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita daukan Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen ikasleei herriko La Paz DBHian jarraipena emateko?

Corellan, 2016ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigoko Udalak, La Paz DBHIko guraso-elkarteak eta ikastetxeko zuzendaritzak espazioak handitzeko egin duten eskaerari buruz.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigoko Udalak, La Paz DBHIko guraso-elkarteak eta ikastetxeko zuzendaritzak espazioak handitzeko egin duten eskaerari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zeintzuk dira Hezkuntza Departamentuaren irizpidea eta aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak, La Paz DBHIko guraso-elkarteak eta ikastetxeko zuzendaritzak aipatu ikastetxeko espazioak handitzeko egin duten eskaerari buruz?

Corellan, 2016ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, eskola-jazarpenaren aurkako neurriei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, eskola-jazarpenaren aurkako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako

kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean hainbat neurri ezarri dira Nafarroako ikastetxeetan bizikidetzari heltzeko. Besteak beste, honako bi hauek aipa daitezke: 47/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa, ikastetxeetako elkarbizitzaren eremuan jokabide orokorra ezartzen duena; eta 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetzara arautzen duena. Azken horrek 47/2010 Foru Dekretua garatzen du, eta, bizikidetzara erregelamenduekin, memoriarekin eta

abarrekin batera, bizikidetzaren planak prestatzeko eta abiarazteko jarraibideak ematen ditu.

Apirilaren 7an aldeko botoa eman zitzaion Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko/Gorteetako Osoko Bilkuran aurkeztutako mozio bati. Mozio horren bidez, Gobernuak premiatzen zen eskola-jazarpenari eta -indarkeriari buruzko txosten bat egin zezan, zeuden jarduketaren protokoloak gara zitzan, eskola-jazarpena desagerrarazten lagunduko zuten neurri berriak bila zitzan, eta prebentzio eta informazio kanpainak egin zitzan, bai eta prestakuntza-jarduerak ere, teknologia eta sare sozialak behar bezala erabiltzera bideratuak.

Alde horretatik, Hezkuntza Ministerioak, Eskola Bizikidetzako Plan Estrategikoaren zirriborroaren barnean, aurreikusi du doako telefono-zenbaki bat ezartzea eskola-jazarpenaren biktimentzat, hariaren beste aldean tituludun profesionalak izanen dituen. Hori da, Planaren zirriborroa aurkezteko orduan, Ministerioak iragarri dituen hirurogeita hamar neurrietako bat.

Ministerioaren arabera, planaren helburu nagusia da erreferentzia izatea ikasle, familia eta irakasleentzat, eta hori egiten du, Espainiako Gobernuak hainbat ministerioek modu koordinatuan eta lankidetzan gauzatutako lanaren bidez, baita autonomia-erkidegoetan gauzatzen ari diren jarduketak gehituz ere.

Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Eskola-jazarpenaren aurkako Aragoiko I. Plan Integralaren bar-

nean, telefono-zenbaki bat abiarazi berri du, eskola-jazarpena salatzeko.

Telefono-zenbakia doakoa da, eta egunean 24 orduz funtzionatzen du, urte osoan zehar.

Hezkuntza Departamentuak aditzera eman du jendaurrean haur- eta gazte-psikologoek erantzunen diotela telefonoari, eta horiek arazoa zein den detektatuko dutela, zerbitzu egokira bideratu ahal izateko.

Hori dela-eta, Hezkuntza Departamentuari honako hau galdetzen diogu:

1.- Zein harreman izan dute Hezkuntza Departamentuko arduradunek Ministerioarekin, bi administrazioek eskola-jazarpenaren aurka hartu dituzten neurriak koordinatzeko?

2.- Zein irizpide eta iritziz dauka Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetan gertatzen diren eskola-jazarpenaren kasuak salatzeko telefono-zenbaki bat ezartzeari buruz?

3.- Aurreikusi al du aldaketaren bat egitea Nafarroako arloari buruzko araudian?

4.- Aurreikusi al du zuzenean edo Ministerioarekin batera telefono-zenbaki bat ezartzea, Nafarroako ikastetxeetan gerta daitezkeen eskola-jazarpenaren kasuak salatzeko?

Corellan, 2016ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko enpresak “Industria 4.0” izenekoan murgiltzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako Foru Komunitateko enpresak “Industria

4.0” izenekoan murgiltzeari buruzkoa zen, eta 2016ko apirilaren 8ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Nafarroako hezkuntza sistema” gaiari buruzko eztabaida antolatzeko arauak aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. “Nafarroako hezkuntza sistema” gaiari buruzko eztabaida antolatzeko arauak aldatzea, 2015eko azaroaren 23ko Mahaiaren erabakiaren bidez onetsiak (36. NPAO, 2015-11-27koa), honela:

“1. Eztabaida hasiko da Osoko Bilkura monografikoa proposatu duen parlamentu-taldearen edo foru parlamentarien elkartearen eledunaren mintzaldiarekin, eta horrek, gehienez ere, hogeita minutu iraunen du.

Ondoren, eskatzen duten gainerako parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkartearen eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldien hurrenkerak kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, iraupen berarekin.

2. Mintzaldi horiek bukatuta, bilkura ordubetez etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkezten ahalko ditu, eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia izanen dutenak. Proposamenak, egiaztapen elektronikoarekin eta zenbatuta, posta elektronikoaren bidez bidali beharko zaizkio Zerbitzu Orokorretako buruari bilkura eten eta hamabost minutuko

epean, eta horrek, bere aldetik, Mahaiko kideei emanen dizkie.

Jarraian, ondoko hamabost minutuetan, Mahaiak proposamenak onartuko ditu, eta parlamentu-taldearen edo foru parlamentarien elkartearen eledunei helaraziko dizkie, zeinek hogeita hamar minutu izanen baitituzte proposamenak aztertzeko.

3. Bilkura berriro hasten denean, onarturiko proposamenak batera defendatuko dira, gehienez ere hamar minutuz, 1. arauan ezarritako eztabaida-hurrenkerari jarraituz, eta eledunek haien iritzia emanen dute, halaber, gainontzeko parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarteek aurkezturikoen inguruan.

Eztabaidan zehar, lehendakariak izapidera onartzen ahalko ditu in voce zuzenketak, baldin eta haien xedea errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, soilik inongo parlamentu-talderik edo foru parlamentarien elkarterik aurka azaltzen ez bada onartzen ahalko dira zuzenketa horiek.

4. Proposamenen eztabaida amaiturik, 1. arauan adierazi aurkezpen-hurrenkerari jarraituz bozkatuko dira. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira.”

2. Agintzea arau horiek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

